

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URKABUSTAIZKO UDALA

#### **01/2020 kredituak gehitzeko 2020ko ekitaldiaren aurrekontua aldatzeko espedientearen hasierako onarpena eta 2/2020 kreditu gehigarriaren espedientearen hasierako onarpena**

Udalbatzak, 2020ko apirilaren 29an egindako ohiko bilkuran, aho batez erabaki zuen hasierako onarpena ematea 01/2020 kredituak 2020ko ekitaldian sartzeko aurrekontu-aldatzeko espedienteari eta 2/2020 kreditu gehigarriaren espedienteari.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, espediente horiek hamabost eguneko epean egongo dira jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; epe horretan, interesdunek aztertu ahal izango dituzte, eta hala badagokio, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztuko dizkiote Osoko Bilkurari.

Kredituak gehitzeko espedienteak eta kreditu gehigarriko espedienteak behin betiko onartutzat joko dira epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Horren berri izan dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Izarra, 2020ko apirilaren 30a

*Alkatea*

*XABIER ÁLVAREZ DE ARCAJA FERNÁNDEZ DE LANDA*